



EBAZPENA, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda onartzen duena (hautaketa-prozedurak 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deitu ziren)

Hezkuntzako sailburuaren 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez (2025eko martxoaren 6ko EHAA), Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozedurak iragarri ziren.

2025eko apirilaren 15eko Ebazpenaren bidez, Langileak Kudeatzeko zuzendariarena, aipatutako hautaketa-prozeduretan onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin-behineko zerrenda onartu zen.

Erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren eta behin aztertuta, aipatutako deialdiaren 4.3 oinarriak xedatutakoaren arabera,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.— Onartzea Euskal Autonomia Erkidegoko Bigarren Hezkuntzako irakasleen kidegoan sartzeko eta horra iristeko hautaketa-prozeduretan onartutako eta baztertutako izangaien behin-betiko zerrenda (hautaketa-prozedurak 2025eko otsailaren 24ko Aginduaren bidez deitu ziren).

Bigarrena.— Ebazpen hau, bai eta behin-betiko zerrenda ere, interesdunei jakinarazteko, Hezkuntza Sailaren Interneteko helbide hauetan argitaratuko dira:

- <https://hezigunea.euskadi.eus/> («Erabiltzailea» eta «Pasahitza» sartuz) – «Eremu pertsonala» – «Izapideak langileen sailarekin» – «Administrazio-izapideak» – «2025eko EPE. Bigarren Hezkuntza» – «Hautaketa-prozesuaren jarraipena» (hautatu Kidegoa eta Espezialitatea) eta «Onartuen eta baztertuen zerrenda»

- <https://www.euskadi.eus/eusko-jaurilaritza/hezkuntza-langileak/> («EPE 2025. Bigarren Hezkuntza») – «Onartutako eta baztertutakoen zerrenda».

Hirugarrena.— Onartutako izangaien zerrendan agertzeak ez du esan nahi deialdi honetan eskatutako baldintza guztiak betetzen dituztenik. Beraz, onartutako pertsonen prozedura honetan parte hartzetik eratorritako eskubideak izateko, 11. oinarrian jasotako dokumentuak aurkeztu beharko dira, eta, ondorioz, eskatutako baldintzak betetzen direla egiaztatu eta azterketa medikoa gaingiditu beharko da.

Laugarrena.— Ebazpen honen aurka, gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango diote interesdunek Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordeari, hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Langileak Kudeatzeko zuzendaria,  
UNAI NIETO MARIJUAN

